

## zuzendariari

(0034) 943 300 222

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

## Zarauzko EAko lehendakariari

Arrate Makazaga Urrutia (*Senideak elkartekoa eta Xabier Makazagaren arreba*)

Urte berriko lehen igandean Zarauzko EAko lehendakariaren idatzia azaldu zen *Diario Vasco*-n, *Ante la situación del preso Xabier Makazaga* izenarekin, eta behartuta nago erantzun bat ematera.

Duela egun batzuk EAko zuzendaritzarengana jo nuen Zarauzko Senideak elkartearen izenean, Xabier Makazaga herrikidearen entrega dela-eta hiru gauza eskatzeko. Herritar guztiek jakin dezaten, hona hemen eskaera horiek: lehenengo, Frantziako Barne ministroari, Justizia ministroari eta beste zenbaiti eskutitz bana bidaltzea Xabierren askatasuna eskatzuz; bigarrena, Zarauzko Senideak elkartearen igandeko manifestaziorari atxikimendua ematea eta, hirugarrena, Zarauzko EAK bere kabuz ekimenen bat egin zezala entregaren aurka.

Ez dugu inolako erantzunik jaso. Lehenengo puntua ez dakit bete duzuen, baina ondorengo biak... begien bistakoa da ezetz. Edo *Diario Vasco*-ko idatzia ote da EAren erantzuna? Antolatuta zegoen manifestazioa zapuzteko intentzioarekin egindako idatzi hori, alegia?

Ni partaide naizen Senideak elkarteak presoan alde egiten du lan. Zuek zeren alde egiten duzue? Betikoa esaten diguzue, presoak erabili egiten ditugula, senideen erruz presoek askatasunik ez dutela, alegia. Buka dezagun behin eta betiko aitzakia merke horrekin. Jo ezazue sustraira, eta herriko presoek galdetu ea zer nahi duten, nola dauden, zerekin dauden ados eta zerekin ez. Baina ez, inoiz ez zarete presoan egoera gertutik ezagutzen saiatu, inoiz ez zarete herritarrek dauden presondegiatara joan, aukerak eman arren.

Gu ondo ari ote garen? Hori ezin dizuet goitik behera ziurtatu, hori denborak esango digu. Baina zerbait egin behar dela garbi daukat. Gu zerbait egiten ari gara, ahal duguna eta ahalik eta modu egokien



## galdeiozu...

**Azken urteotan aurrera edo atzera egin du euskarazko antzerkiak?**

Miren Llanos (Bilbo)

Ba, dudarik gabe, aurrera egin duela pentsatzen dut, bai horixe! Hala ere, askoz ere aurrerago joatea espero dut.

Azken urteotan euskaraz, edo bi hizkuntzatan, gaztelaniaz eta euskaraz —inork ba ote daki zer zoramen den hori?—, egiten den antzerkia oso maila onekoa dela ezingo dit inork ukatu. Ez du euskaraz egiteagatik *denak* balio, ezta gutxiagorik ere! (zorionez!). Gaur egungo euskal antzerkia oso bizirik dago, eta ukazina da gaur bizi dugun erritmoan euskal antzerkia atzean ez geratzea merito handia dela... Ez da kontu makala!

Eta aurrerago joateko zer? Ba, laguntza gehiago behar dugu. Gure ahaleginak hutsak dira antzerkiak ez badu instituzioetatik diru gehiago jasotzen —hori funtsezkoa da—, programatzaileei ez bazaie euskarazko antzerkia behar bezain errentagarri eta komertziala iruditzen, komunikabideek ez badiote egiten denari jaramonik egiten —eskertzekoa da EGUNKARIAK euskal antzerkiari ematen dion bultzada eta laguntza!—, eta azkenik, eta garrantzitsuena, jendea ez bada antzokietara etortzen (eta jendea, zorionez, etortzen da!). Beraz, gu baino hobeto dagoena ez dago gaizki!

Urtarrilaren 15etik aurrera **Eneko Landaburu • mediku higienista** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



**AITZPEA GOENAGA**

Antzerkilaria

an den abuztuan, eta abenduan, Gizarte Segurantzak Probintzi Zuzendaritzak hitzordua jarri zion osasun azterketa egiteko. Senda-agiria emango ziola mehatxu egin zion, nahiz eta jakin osatzeko astirik ez zuela izan. Mehatxuak, jazarpenak, kontrola... Horrelakoez baliatzen dira mutuak, Ikuskaritza Medikoa, Gizarte Segurantza eta enpresetako medikuak helburu bat lortzeko: langileak berriro lanera itzul daitezela lehenbailehen, sendatu ez arren, diru publikoa eta enpresariena aurrezteko.

Neska-laguna, jakina, ez zen agertu hitzordura, ez zegoelako behar bezalako egoeran. Neu joan nintzen, ez argibideak eskatzeko, azalpenak emateko baizik. Ez nire neska-laguna ezta beste langilerik ere ezin dela presionatu esan nien; egunean zortzi orduz baldintza txarretan lan egiteagatik min hartzen duten edo gaixotzen diren langileei sendatzen utz diezaietela eskatu nien. Egin behar dutena zera da: lan baldintzak aldatu, urtero milaka langile gaixotzea eragozteko. Hori da medikuaren alorraren zeregina (mutuena, Ikuskaritza Medikoa, Gizarte Segurantzarena, prebentzio zerbitzuek). Horiena da erantzukizuna eta bete-beharra soldatapekoen osasuna ona izan dadin. Horiek enpresariak behartu behar dituzte lan baldintzak hobe ditzaten.

Madrilgo Gobernuak mutuen konpetentziak areagotzeko erabakia hartu duenetik —argi eta garbi osasun publikoaren pribatizazioa sakontzeko egin du—, mutuen kontrola ia poliziala da, osasun zerbitzuak eta medikoak okertu egin dira eta soldatapekoen kexak ugaritu. Gure osasuna benetan hobetu nahi badugu, beharrezkoa da dekretu bat ezabatzea lantegietatik, hau da, gaixotasun arrunta duten langileei senda-agiria emateko eskumena mutuen gain uzten duen dekretua.

Nik lan egiten dudana enpresan —Iruñerriko Urak— lan batzordeak ezezkota esan dio neurriari. Hala, bada, heda dadila jarrera hori, Nafarroako beste enpresa askotan gertatzen ari den bezala.

nean. Zuek, ordea, besteek egiten dutena zapuzten saiatzen zarete. Zergatik? Garbi dudana da Xabierren egoeran aurkitzen ziren azken presoak ez direla entregatuak izan Senideak, Gureak eta presoan sostengu plataformek egindako lanari esker, zuk eta zu bezalakoak jarritako oztopoei aurre eginez.

Zarauzko EAko militanteok, adi! Zuen zenbait ordezkariaren diskurtsoa eta PP eta PSOEna berdina da. Antza denez, presoan senideekin inoiz ez daude eroso, presoan senideentzat beti daukate atea itxita.

Dena den, ezin dut idatzi hau bukatu

herriko alkate Maite Etxanizi gure eskerrik zintzoena eman gabe, Xabier Makazagaren auzian entzuten jakiteaz gainera tratatu egokia erakutsi duelako.

## Lantokian gaixo ez jartzeko eskubidea

Patxi Encaje (*ACPSAko LABeko prebentzio ordezkaria*)

Hau adibide bat besterik ez da, baina milaka daude, gero eta gehiago. Nire neska-laguna hernia diskaletik operatu zuten jo-

## montxo

